

getxo Berri

/ Nabarmenezkoak

- > Bi urtez luzatu da Benta eraikineko beheko solairua erabiltzeko lagapena (2. or.)
- > "Erromintxela" dokumentala Muxikebarrin (2. or.)
- > Areetako Geltokiko plazan "Auzotarren mosaikoa" murala egiteko lanak hasi dira (5. or.)



*Herritarrei urte osoan birziklatu behar dela gogorarazteko kanpaina (4. or.)

Antzerkia. Otsailak 1, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "La colección", José Sacristánekin. 20€.

Zirkua. Otsailak 2, igandea, 19:00etan, Muxikebarrin, "Ambulant", Fam Produccionsen eskutik. 10€.

A-
GENDA

Areetan Mayor kalea erdi oinezkoentzat bihurtzeko azken lanak hasi dira, eta Maximo Agirre kalean Bulebar berdea sortzeko obra

Mayor kalea erdi oinezkoentzat bihurtzeko 2. faseko obrak hasi dira aste honetan bertan, bai eta Maximo Agirre kalean Bulebar berdea sortzekoak ere, biak Areetan. Eduardo Coste kalean Getxo eta Bilbo bizikletaz lotzeko laster zabalduko den bidegorriko lanei gehitzen zaizkie. Ekonomia sustertzeko Europako *NextGenerationEU* funtsetatik jasotako 3.053.640 euroen bidez finantzaturako hiru obrekin, Getxok aurrera egingo du mugikortasun jasangarria sustatzeko eta oinez eta bizikletaz egindako joan-etorriak sustatzeko.



Amaia Aguirre alkatea eta Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia bat etorri dira eta nabarmendu dute: "bi lan hauekin eta Eduardo Coste kalean ia bukatuta dagoen bidegorrikoekin, aurrera egiten dugu hiri gizatiarrago, seguruago eta irisgarriago bat sortzeko, pertsonak ardatz dituen. Areetan oinezkoentzako eta txirrindularientzako lekua irabazten jarraitzen dugu eta, gainera, aurrera egiten dugu Emisio Txikiko Eremuaren konfigurazioan eta deskarbonizazioan. Hemen bizi gareno mesede egiteaz gain, jarduketa hauek Getxo erreferente gisa kokatzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta hiri-eredu jasangarriago baterako trantsizioan".




Mayor kalea, Santa Anarekin bat egiten duen tokian, Bizkaia Zubirantz

Mayor kalea

Obra Areetako Etorbidea-Bizkaia Zubia plazatik Santa Ana kalearekiko elkarguneraino doan zatian egingo da, eta 1. fasean (Santa Ana kalea eta Areetako Geltokia plazaren artean) egindako lanen jarraipena izango da, inguruko oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko eta bidegorriaren jarraipena errazteko. Eta lehen fasean ez bezala, tarte horretan ibilgailuz zirkulatu ahal izango da, plataforma bakarrean.

Lanak 5 hilabeteko iraupena izan-



Maximo Agirre kalea, Ibaiganerekin bat egiten duen tokian, baselizarantz

go dute eta esleipen-aurrekontua 978.033 eurokoa da, %90ean Europar Batasuneko *Next Generation* funtsek finantzaturak, hirien ingurumen-kalitatea hobetzeko eta hirietako mugikortasun jasangarria sendotzeko.

Proiektuak lineako aparkaleku bat izango du ezkerreko ertzean, eta bateriako aparkaleku bat eskuineko ertzean, kalearen hasieran, taxi-geltokiaz eta bere lineako aparkalekuaz gain. 7 aparkaleku galduko diren arren (54tik 47ra murriztuko dira), horiek Eduardo Costen irabaziko direnekin konpentsatuko dira. Zona osoan aparkaleku-plaza bat irabaziko da.

Máximo Aguirreko bulebarra

Obrak hartuko duen eremua da Eduardo Coste kalearekiko elkargunetik Santa Ana ermita dagoen plazaraino, eta ermitatik Ibaigane kaleraino. 1.645.363 euroko lizitazio aurrekontua du, eta 6 hilabete inguruko exekuzio-epea.

Jarduketa horrek jarraipena emango dio dagoeneko Getxon hasitako beste lan batzuei, erdigunean oinezkoentzat eta txirrindularientzat atsegina izango den gunea bat sortzeko helburua dutenak, non oinezkoak eta trafiko barea plataforma bakar batean batera existituko diren; izan ere, oinezkoek lehentasuna izango dute, baina ibilgailuek ere zirkulatu ahal izango dute. Jarduketaren barruan sartuko dira bi aparkaleku-ilara egiteko lanak, eta zuhaitzak eta berdeguneak berriz jartzea. Aparkaleku-plaza bakarra galduko da (125etik 124ra murriztuko da).

Obrek dirauten bitartean, Mayor eta M. Aguirren **bi informazio-modulu izango dira** (bigarren kalekoa, laster), proiektuen, trafikoaren eraginaren etabarren berri emateko, goiz eta arratsaldean.



URTARRILAK 23 OSTEGUNA

Kontzertua. Neguan Flamenco zikloa. 20:30ean, Muxikebarrin, Naike Ponceren emanaldia. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarrin).

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Marielle Hellerren "¿Podrás perdonarme algún día?" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

URTARRILAK 24 OSTIRALA

Umorea. 20:00etan, Muxikebarrin, "Yo sobreviví a la EGB" (gaztelaniaz), Jordi Mercarekin. 10€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jeanne Herryren "Las dos caras de la justicia" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

URTARRILAK 25 LARUNBATA

Kontzertua. Neguko bidaia zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Duo Nacedo, Lidia Sierra (bibolina) eta Inés Moreno (biola). 5€.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Heisenberg" (euskaraz), Ramón Agirre eta Naiara Arnedorekin. 10€.

URTARRILAK 26 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Fritzi, un cuento revolucionario" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Herensugeak, haritzaren bihotza" (euskaraz). 2,50€.

Pailazoak. 18:00etan, Muxikebarrin, "Pailazo", Txirri, Mirri eta Txirribitonekin. 6€.

URTARRILAK 29 ASTEAZKENA

Versadas. Olerki-kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Saioa Maya Angelouren lanari buruz. Gaztelaniaz.

Hitzaldia. 19:00etan, Urgull Zentroan (Urgull kalea-Algor-ta), "Europa y Oriente Medio. Diplomacia, reconstrucción y responsabilidad internacional". Hizlaria: Susana Manga-

na (Deustuko Unibertsitateko ikasketa arabiar eta islamikoe-tako irakaslea). Antolatzailea: EurGetxo elkarte.

URTARRILAK 30 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren "80 egunean" (euskaraz). Adin guztiak. 3,50€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Chopin: Vida y obra. Estudios de piano" (gaztelaniaz). Hizlaria: José Quisilant. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen pertsonala eta komunitariorako elkarte.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte-ko Kultur Etxean. Leire Azkargotarekin "Herriaren hezkuntza eta demokrazia" saiakeraz mintzatuko dira. Izenematea: 619 93 55 41. Egizuk antolatuta.

URTARRILAK 31 OSTIRALA

Erakusketa. Algortako Merkaturan, Igor Nuñez Villamandosen "Presentes no vistos". Otsailaren 23ra arte.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Sylvia Yáñezaren "Mosaicos artísticos. Pintar con piedra". Otsailaren 28ra arte.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Patricia Fonten "El maestro que prometió el mar" (gaztelaniaz eta katalanez). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

OTSAILAK 1 LARUNBATA

Ipuin-kontaketa. Storytime for babies. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "A world of magic" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Kontzertua. Neguko bidaia zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "She is a devil" (rocka). 5€.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "La colección" (gaztelaniaz) José Sacristán, Ana Marzoa, Ignacio Jiménez eta Zaira Montesekin. 20€.

OTSAILAK 2 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Midas erregearen altxorra" (euskaraz). 2,50€.

Zirkoa. 19:00etan, Muxikebarrin, "Ambulant", La Fam Produccions-ekin. 10€.

Bi urtez luzatu da Benta eraikineko beheko solairua erabiltzeko lagapena

Udalak bi urtez luzatu dio Bentaranoa irabazi asmorik gabeko elkarteari lagatzea Benta eraikineko beheko solairuan interes orokorreko jarduerak egiteko erabilera zuzena eta doakoa. 2023an hitzarmena sinatu zen, zeinaren bidez Udalak lokal horren erabilera eta ekipamendua zuzenean eta doan lagatzen zizkion elkarte horri. Amaia Agirre alkateak gogorarazi duenez, "balio anitzeko espazioa da, integratzailea eta belaunaldien artekoa, ezagutza partekatzen da eta esperientziak trukutzen dira, euskararen erabileran eta sustapenean arreta berezia jarritz".

Lehen bi urteetan, 2023. 2024. urteetan, Artearen eta Kulturaren hedapenaren arloan programatu dira: 5 erakusketa, 3 liburu-aurrezpen, 3 kontzertu eta errezitaldi eta 2 zinema- eta dokumental-emanaldi. Gunea honako hauetarako ere erabili da: txalaparta eta yoga tailerrak, kontsumoari buruzko eztabaidak eta migrazioari eta integrazio kul-



turalari buruzko hitzaldiak egiteko.

Benta, halaber, inguruko herritarrek hainbat jai gozatzeko gune izan da: Inauteriak, San Isidro, Gau Beltza, Olentzero edo Itxas Argiaren 60. urteurrena; baita haurrentzako light painting (argiarekin margotzea) tailerrak antolatze-ko, haurrentzako programak euskaraz garatzeko eta magia saioak egiteko ere. Euskararen eta Genero Ikuspegiaren sustapenari dagokionez, belaunaldien arteko hitzaldiak eta dokumentalak antolatu dituzte, ikuspegi soziala kontuan harturik. Giza Eskubideak, Globalizazioa eta Inguru-

men Jasangarritasuna izan dira lokalean antolatuta-ko beste hitzaldi batzuen gaiak.

Bestalde, Herritarren Partidetako zinegotziak, Gorka Mostajok, arreta jarri du "lokalaren eta bere jardueren ardua hartu duten boluntarioen lanean eta dedikazioan; hori nabarmendu behar da gero eta banakoagoa den mundu batean, non joera baita besteei denbora gutxiago eskaintzea".

Bentaranoa Elkarteak helburukako programazio-ildoak bultzatzeko asmoa du orain, gazteriarekin, genero-ikuspegiarekin eta euskararen sustapenarekin lotutako kolektiboek zuzenduta.

Getxoko eskaintza Fiturren

Getxok FITUR Nazioarteko Turismo Azokan parte hartuko du aurten ere, Madrilen, urtarrilaren 26ra arte (igandea). Gure udalerriko eskaintza turistikoa Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren *Euskadi-Basque Country* standean egongo da. Stand horrek Bilboko eta Bizkaiko erakargarritasun turistikoak biltzen ditu, Foru Aldundiak koordinatuta.

Gure udalerriak 2025erako esperientzien eta planen eskaintza berria ezagutaraziko du, 53 aukera aurreikusten dituen publiko eta gustu guztientzat, 11.078 hitzordu baino gehiagorekin. Proposamen horretan, sektoreko 31 enpresak eta ostalaritzako eta gourmet dendetako 300 establezimenduk hartzen dute parte.

"Erromintxela" dokumentala Muxikebarrin

Erromintxela. Senderos y raíces dokumentalaren proiektzioa izango da ostiralean, urtarrilak 24, Muxikebarrin, Udalak eta UN Etxeak antolatuta. Ainhoa Zamanillo eta Marta Las Heras sortzaileek *Eman Minutu 1 HITZ*en alde lehia- ketaren XIII. edizioa (hizkuntza eskubideei buruz) irabazi ondoren egin zuten lana, aipatutako elkarteak, Udalaren laguntzarekin, antolatuta. Proiektzioa 19:00etan hasiko da, doako sarrerarekin (aurretiko inskripzioa: <https://labur.eus/h6eu5>), eta ondoren solasaldia izango da Ainhoa Zamanilloarekin.



Dokumentalak ijito herria XV. mendean Euskal Herrira iritsi zen unea erakusten du, euskararen eta romanóaren baldintza lexiko-gramatika- letara egokitzea lortu zuzenean eta ondorioz *erromintxela* sortu zenean.

Berbalagunarako izenematea

Gustuko jarduera bat egiten duten bitartean euskara praktikatu nahi duten herritarrek Berbalaguna ekime- nean eman dezakete izena hilabete honetan. Egizu elkarteak antolatuta, inskripzioa berriro zabaldu du egi-zu.eus/berbalaguna helbide elektronikoren bidez.

Argiztapen gorria Kawasakiren gaixotasunagatik

Urtarrilaren 25eko eta 26ko gauetan Areetako kaia eta udalerriko igogailu publikoak kolore gorritz argiztatu- ta egongo dira, Kawasakiren Gaixotasunaz Kontzientzia- tzeko Munduko Eguna dela eta. Odol-hodien baskulitis edo inflamazio mota bat da, haurrenganako kardiopatiaren lehen kausa. Ekintza hori *Bihotz osasuntsuen aldeko argiak* V. kanpainaren barruan kokatzen da, gaixotasun hori publikoki ikusa- razteko.



- **Bidaia agentzia** familien bila dabil hiru edo lau egunez eskola bidaia egingo duten 2 edo

3 ikasleri ostatu emateko. Zure ohiko jarduerak egin ahal izango dituzu, diru apur bat irabazten duzun bitartean. Tel.:609 90 58 26

- **Ingelesa.** Irakasleak klase partikularrak ematen ditu. Beharpenak Gazte Txartelarekin. Tel.: 687 00 0650 (Romo)

Norberaren iragarkiari direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia egiazko- tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komuni- kazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bi- zitzari lotutako albisteak eta informa- zioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: **Nekane Ardanza**. **Monika Rodrigo**, **Iñigo Olondo**. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: **Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL**. Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.** Banaketa: **Mediapost**. Gordailu legala: **BI-388-87**

Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**.



Txirri, Mirri eta Txiribitonek beren lanbidea aldarrikatzen dute "Pailazo"n

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo hirukotea Getxora itzuliko da *Pailazo* ikuskizunarekin. Proposamen horrekin, beren lanbidearen jatorria aldarrikatu nahi dute. Muxikebarrin arituko dira igandean, hilak 26, 18:00etan, eta sarrerak 6 euro balio du.

Lan berri honekin pailazoak dirrela ospatu nahi dute. Hirukotea duela 50 urte hasi zen Kixki, Mixki eta Kaxkamelon izenpean.

"Pailazoa, clowna, zirkuan sortu zen, askok diotenez. Ausaz jaiotzen, gainera, eta barrea eragiten duen figura izan da gaur arte. Horixe aldarrikatu nahi dugu Pai-

lazoan. Bitxikeriez eta pailazokeriez gain, taldearen abesti ezagun eta ez hain ezagunak joko ditugu, hala nola Paristik Natorren, Txirri, Mirri eta Txiribiton edo Altza Pelipe".

Txikienengan euskara sustatzeko hasi zen proiektua da, eta familia osoak goza dezan altxor kultural bihurtu da.

Irutasun ahots berrien bila

Algortako Irutasun Abesbatza ahots mistoen taldea ahots berrien bila dabil. Ez da ikasketa musikalik behar, zaletasuna eta ahots ona baino ez. Entseguak astelehen



Ramon Agirre eta Naiara Arnedo dira "Heisenberg"eko protagonistak

Ramon Agirre eta Naiara Arnedo dira *Heisenberg* antzezlanaren protagonistak. Muxikebarrin izango da ikusgai, euskaraz, larunbatean, hilak 25, 20:00etatik aurrera.

Georgie Burns-ek, 42 urteko emakumeak, eta Alex Priest-ek, 75 urteko gizonak, Londresko Saint Pancras geltokian ezagutuko dute elkar. Atzetik ikusita, Georgiek

Alex bere aita delakoan (orain dela urtebete hil zela), eroaldi batean musu ematen dio garondoan. Topaketa hori izango da biei bizitza aldatuko dien jolas zoragarri baten hasiera.

Heisenberg lanarekin, Simon Stephens egileak gizakion arteko konexioa zein ziurgabea eta komikoa izan daitekeen erakutsi nahi digu. Werner Heisenberg fisikariak formulatutako ziurgabetasunaren printzipioa erabiltzen du itxuraz kontrajarriak diren bi pertsonaien arteko harremana garatzeko oinarri gisa. Fernando Bernués zuzendariak obraren funtsa azpimarratzen du emozioak aztertuz.



Biolin eta biola errezitaldia Areetako Musika Eskolan, Dúo Nacedo taldearekin

Lidia Sierrak (biolina) eta Inés Morenok (biola) osatutako Dúo Nacedo taldeak errezitaldia eskainiko du larunbatean, hilak 25, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Neguko bidaia kontzertu didaktikoen zikloaren barruan. Lidia Sierrak biolineko goi maila ikasi zuen Musikenen, espezializazio ikastaro bat egin zuen Goteborgeko Unibertsitatean eta Interpretazioko Master bat Anberesko Errege Kontserbatorioan. Inés Moreno, berriz, biola-jotzaile profesionala da musika klasikoan eta musika sortu berrian. Errepertorioan Couperin, Garth Knox, Mozart edo Martinuren obrak interpretatuko dituzte, besteak beste. Kontzertua 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.



"Yo sobreviví a la EGB", umorezko eta musikazko bakarrizketa Jordi Mercarekin

Jordi Mercak *Yo sobreviví a la EGB* bakarrizketa aurkeztuko du larunbatean, hilak 24, Muxikebarrin, "umorezko show ezin hobea garai gaizto hori jasan zuten guztientzat". 80ko hamarkada, arropak, musika, *dabuti* eta *okey maky* bezalako esamoldeak, besteak beste, ahanzturan hobeto daude. Artistak stand-up ikuskizun hau aurkeztzen du, publikoari gogoraraziko diona, modu barregarrian, nor izan zen eta nor den orain. "Naranjito ondorengoa bazara, baina, batez ere, Cobi aurrekoa bazara, zatoz umorez eta musikaz betetako tarte eder bat igarotzera", dio Mercak. "Iraganeko garaiak beti hobeak izan zirelako kontu hori agian ez da guztiz egia". 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du.

Herritarrei urte osoan birziklatu behar dela gogorarazteko kanpaina

Urte osoan birziklatu! lelopean, Udalak, Ecoembes eta Ecovidrio irabazi asmorik gabeko erakundeekin batera, kontzientziazio-kanpaina bat egin berri du hiri-hondakin solidoak jatorrian bereizteari buruz. Horretarako, udalerriko postontzi guztietan informazio-liburuxkak eta imanak utzi dira, "gure etxeetan sortzen ditugun hondakinak behar bezala bereizteko herritar guztiok dugun betebeharrean erne egon behar dugula gogorarazteko", azpimarratu du Janire Ocio Azpiegitura, Obra, Zerbitzu eta Ingurumeneko zinegotziak. Guztira, formatu bakoitzeko 32.000 unitate banatu dira.

Kanpainak Udalak ingurumenarekin duen konpromisoari erantzuten dio eta bere helburu nagusia "gehiago eta hobeto birziklatzea" adierazpenarekin laburbiltzen da, hondakinei buruzko Europako zuzentarauak ezarritako helburuekin bat etorritik, 2035erako birzikla-



tzeko gutxieneko konpromisoak zehazten baititu: adibidez, bereizita bildutako udal hondakinen portzentajea sortutako udal hondakin guztien pisuaren %65 izango da gutxienez.

Informazio-liburuxkak irudiekin eta testu laburrekin ilustratzen du birziklatze-lerro bakoitzean zer hondakin-mota bota behar den (papera eta kartoia, beira,

ontziak eta organikoak), eta edukiontzia bakoitzean (urdira, berdea, horia eta marroia) bota behar ez diren hondakinak ere aipatzen ditu. Gainera, iman bat postontzietan banatu da, gai berari buruzko informazioa emateko; izan ere, QR kode bat du imanak, eta, horri esker, Udalaren webgunean kontsulta daiteke gaikako bilketa lerroei buruzko informazio zehatzagoa, bai eta Garbigertuen eta

Garbigunearen ordutegiak eta kokalekuak ere.

"Berriro ere gogorazi nahi diegu Getxoko herritar guztiei derrigorrezkoa dela gure etxeetan sortzen ditugun hondakinen bereizketan parte hartzea, ezinbesteko lankidetzeta baita Europako ingurumen estandarrak betetzeko, eta Udaletik alde aurretik eskertzen dugu lankidetzeta hori", adierazi du Ociok.

Bisita partikularren kopuruak nabarmen egin zuen gora eta asteburuko jardueren eskaintza handitu egin zen

8.100 pertsonak baino gehiagok bisitatu zuten 2024an Getxoko Ingurumen Aretoa

8.100 pertsona baino gehiago igaro ziren Ingurumen Aretotik 2024an, Udaleko Ingurumen Unitateak emandako balantzearen arabera. Eta bisitari guztietatik, 5.500 lagun inguruk, adin guztietako ikasleak eta pertsona helduak, parte hartu zuten iaz udal ekipamendu honek eskaintzen dituen hezkuntza-pro-

grametako batean. Programa horien bidez, hainbat gai jorrazten dira, hala nola elikadura jasangarria, kontsumo arduratsua, birziklapena eta biodibertsitatearen kontserbazioa.

Iñigo Urkitza Ingurumen Zerbitzuko zinegotziaren arabera,

"joan den urtean, nabarmen igo da Aretoa bisitatu duten partikularren kopurua, aurreko urtean baino 300 gehiago; izan ere, programatzen diren jardueretako batean parte hartzeko, erakusketak bisitatzeko, dortoken-tzako putzua, tximeleten oasia edo arboretuma bisitatzeko edo baliabide ugarietako bat erabiltzeko hurbildu dira. Eta ikasturtean zehar, eskola programaren eskaintza zabaltzeaz gain, asteburuko jarduerak ere diseinatu dira, publiko guztiei zuzenduak, hala nola Bolue inguruko zuhaitz espezieak ezagutzeko ibilbide autogidatuak edo naturan bizirik irauteko jarduerak".



ko solairuan, 200 lan eta estudio ingururekin) kontsultak egiteko.

Urte osoan irekita, abuztuan izan ezik

Ingurumen Aretoa urte osoan irekita dago, abuztuan izan ezik, Larrañazubi auzoko instalazioak bisitatu nahi dituen edonorentzat. Hori dela eta, Urkitzak esan duenez, "gure horretan garatzen diren jarduerak eta programak oraindik ezagutzen ez dituzten pertsona guztiak, auzokoak eta, oro har, herritarrak, animatzen ditugu bisitatzera, deitzera edo gure webgunea kontsultatzera". Orduetgia: 10:00etatik 14:30era eta 15:30etik 17:30era, lanegunetan, eta 10:00etatik 14:00etara, asteburuetan eta jaiegunetan.

Argibide gehiago jasotzeko: <https://www.ingurumenaretoa-getxo.eus/> Tel.: 688883596.

94 466 01 81

Garbiketa- eta hondakin-bilketetako zerbitzuentzako arretaz-zenbaki berria

- Altzari berrerabilgarrien ateratzea, etxetik bertan.
- Altzari ez berrerabilgarrien kaleko bilketa.
- Herriko eguneroko garbiketa zerbitzuarekin kontaktua.
- Alta zerbitzu organikoan: edukiontzia irekitzeko txartelaren erabilera, inausketa eta ostalaritza hondakinak...
- Etxeko hondakin toxiko eta arriskutsuekin lotutako gaiak.
- Transferentzia-instalazioaren administrazioa eta Garbigunea.

Areetako Geltokiko plazan “Auzotarren mosaikoa” murala egiteko lanak hasi dira

Auzotarren mosaikoa horma-lana taxutzen hasi dira aste honetan Areetako Geltokiko plazan. Joan den urtearen amaieran egindako hautaketa prozesuaren ondoren, Giorgos Gkareth Christou eta Liesbeth Montoya Ramallo artistek proposatutako proiektua Ibaigane kaleko 3. eta 5. zenbakietako eraikinaren fatxadan islatuko da datozen hilabeteetan. Eragozpenik ez badago, apirilaren amaierarako edo ekainerako obra amaituta egongo da, eta Areetako hiri-paisaiaren elementu ezagun bihurtuko da.

Auzotarren mosaikoa auzoaren aberastasun bisualean eta kulturean oinarritutako proiektua da. Tokiko nortasuna osatzen duten elementu arkitektoniko, natural eta sozialak irudikatzen ditu, eta, gainera, hiri-espazioaren eta komunitatearen arteko lotura sortu nahi du. Horretarako, eguneroko eszenak, patroiz geometrikoak eta inguruneke zatiak uztartzearen aldeko apustua egiten du, arkitekturaren monumental-tasuna eta naturaren bizitasuna integratzen dituen zabaltasun eta sakontasun sentsazioa sortuz. Josemi Ibarretzek egindako *Xakea* mural enblematikoari ere egiten dio erreferentzia lanak, memoria historikoa eta jarraitutasun kul-



turala sinbolizatzen dituen lan horretan oinarritutako lauki bat txertatuz.

Hautaketa-prozesua
33 proiektu aurkeztu ziren Mi-

ren Larrea lehiaketaren lehenengo fasean, eta horietako bost azken fasera pasatzeko aukeratu ziren. Lehiaketako lehen edizio honetan, arte adituek, Getxo Kulturako teknikariek eta

eraikineko jabeen komunitateko ordezkariak batek osatu zuten epaimahaia.

Ondoren, parte-hartze prozesu ez-lotesle bat jarri zen herritarren iritzia ezagutzeko. Hori amaitutakoan, bozketan parte hartu zuten herritar gehienak (726, guztira) zein epaimahaiak aho batez bozkatu zuten behin betiko proposamena.

Guztira, Getxo Kulturak 33.000 euro bideratuko ditu proiektua gauzatzeko. Horri gehitu behar zaizkio Getxoko Udalak fatxada birgaitzeko eta egokitzeko aurretik eginiko lanak, bai eta beharrezko diren bitarteko osagarriak.

Horma-irudien ibilbidea

Auzotarren mosaikoa da Miren Larrea muralismo-sariko abiapuntua, eta, hurrengo edizioetan, udalerriko zenbait lekutan horma-lanak sortzen lagunduko du. Horrela, pixkanaka, arte-sorkuntzako ibilbidea osatuko da, eta, horren bidez, zenbait sortzaileren lana erakustez gain, gutxiegi erabilitako espazioak ere erabili nahi dira, horma-artearen euskarri gisa, hiri-espazioa horrelako lanak hedatzeko eta gozatzeko plataforma bihurtzeko aldera.

KIROLAK



Getxo Futbola Fundazioaren Gabonetako zozketako sariak banatu dira

Getxo Futbola Fundazioak Gabonetako zozketako sariak banatu ditu. Zozketa horrekin 20.000

euro inguru bildu zituen. Faduran, notario aurrean egindako ekitaldi batean, kirol fundazioak Gabonetako saski handi bat zozkatu zuen, 5.000 eurokoa, eta 11.000 euro bildu zituen, bere futbol taldeen ekipamendurako, entrenamendurako materialetarako eta funtsezko baliabideetarako. Gainera, 3.914 euroko dohaintza eman zion Haszten elkarte getxotarrari, dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako kirol ekimenak garatzeko.

Getxo Kirolak hilaren 27an itxiko da

Datorren astelehenean, urtarrilak 27, ospatuko du Getxo Kirolak bere zaindariaren jaia. Hori dela eta, Fadura, Gobela eta Andra Mariko udal kiroldegia itxita egongo dira jendearentzat.

Etorkizunak 50. urteurrena ospatuko du

Etorkizuna Mendi Taldeak 50 urte bete ditu eta hori ospatzeko jardueraregitarau berezia prestatu du. Lehenengo jarduerak hilaren 27, 28 eta 29an izango dira, 19:00etan, Muxikebarrin. Bertan, Mendi Film jaialdiko film onenen aukeraketa bat proiektatuko da, dohainik eta aretoa bete arte.

Gainera, 2025ean zehar, klubak erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta solasaldiak proiektioekin antolatzeko asmoa du, ospe handiko mendizaleen eskutik. Gainera, Etorki Mendi Traila eta mendi ibilaldiak (oso harrera

onekoak, jende guztiarentzat eskuragarriagoak baitira) antolatzeko jarraituko du, eta dagoeneko bi zeharkaldi ere aurreikusi dituzte: Menorcan eta beste bat, astebetekoa, Andorrako mendietan barrena.

Mendia maite zuen getxotar talde batek sortu zuen Etorkizuna eta elkarte gisa erregistratu zuten ofizialki 1976an. Orduetik, erreferentzia izan da mota guztietako mendi jardueren antolaketan, eta gaur egun 440 federatu biltzen ditu elkarteak (Getxon erregistratutako lizentzien erdia baino gehiago).



Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KULTURAKO ERREFERENTEA

2025. urtearen hasiera honetan Getxo Kultura dugu udalerriko kultura-ekintza instituzionalaren espazio eta ardatz egitura-tzaile. Fusionatu egin dira garai batean bi erakunde bereizi ziren Kultura Aretoa eta Musika Eskola, eta organismo hori sortu da, indar handiagoa duena Getxoren kultura-programazio zoragarriari bultzada emateko, beharrezkoa izanik Musika Eskolak egiten duen zeregin bikainarekin sinergia izatea, bai eta oinarri sendoagoak ere, ahal bada, Getxoko artista, erakunde eta elkarten sormen kulturala sustatzen eta laguntzen jarraitzeko. Kultura erreferentea izan gara hainbat urtetatik hona, eta, orain, berriz ere berreskuratu dugu abangoardia kulturalaren agertokia izateko pultsua, baita sormenarena ere, esparru tradizionalagotik. Gure tradizio kulturalen isla ere izan nahi dugu.

EAJk konpromiso argia agertu du Ge-



txoko biztanleekin, eta, hain zuzen, honela dago idatziz jasota: 2023-2027 aldian Getxo ametsetako hiria izan dadila nahi dugu, baita ilusio handien sorlekua ere; Getxok abangoardia kulturala eta industria sortzaileak izan ditzala, eta konpromisoa izan dezala euskararekin, gure kulturarekin eta tradizioekin.

Kulturaren alorrean ere ari gara betetzen hartutako konpromisoak, Getxo Kulturaren bitartez. Lan egiten ari gara kulturako

eragileekin, sortzaileekin eta kolektiboak eta elkarteak barnean hartzen dituen sare handi batekin, eta, horren bitartez, lortzen ari gara sormenezko proposamenak eta ilusioak egi bihurtzeko. Erreferentzia gara kultur jardueretan, instalazioetan eta ekipamenduetan, baita Getxoko artistentzako eta industria sortzaileentzako beken eta laguntzen programetan ere. Muxikebarri programazio kultural zabal-zabala eta proposamenak ditu Getxon sortzen dutenentzako; RKE

erreferentea da erakundearen ekintzako eta kalitatezko kultura-proposamenetan; Andrés Isasi ere apustu argia da maila handiko kultur ekimenetarako, eta Algotako Musika Eskola prestakuntzako eta erakusketako espazioa da etorkizuneko artista handientzako. Froga ukaezina da.

Eta, noski, ezin ditugu ahaztu Getxoko liburutegi zoragarriak, ezta Villamonte handitzeko eta egokitzeko proiektua ere, batez ere egungo liburutegirako.

Guretzako, Getxoko EAJ taldearentzako, kultura funtsezko gaia da norberaren eta gizartearen garapenerako, eta, horrez gainera, balioa eta ezagutza ematen dizkigu zentzu guztietan. Hori dela eta, kulturaren nahiz sormenaren, abangardian eta tradizioan, gure konpromisoak betetzen ditugu ere bai.



2025EKO AURREKONTU-AKORDIOA: GETXO IRISGARRIAGOA ETA BERRITUAGOA

2025. urtea hasiko dugu **aurrekontu-akordio** batekin, **Getxoko PP, EE eta EAJren arteko lankidetzari** esker, helburutzat duena **hiri-ingurunea, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea**, besteak beste. Neurri nagusien artean nabarmendu behar dira, hasteko, **Foru kalean arrapala mekanikoak instalatzea**, eta, horrez gain, **Salsidu eta Bidezabaleko arrapalak hobetzea**, barnean hartuta **bideragarritasun-azterlan bat azken horietako bat estaltzeko** eta estali gabeko arrapalen aldean duen inpaktua ebaluatzeko. Gainera, Ereagako igogailuaren berritze partziala egitea planteatzen da,

horren funtzionamendua funtsezkoa baita Algotarekin lotzeko.

Hirigintzan, akordioak barnean hartzen du **Miramar kalearen hirugarren fasea amaitzea, Sarrikobason aurri-egoeran dagoen zona birgaitzea eta Mesedeetako kalean aparkalekua eraikitzea**. Azpiegitura hori beharrezkoa da Getxon aparkatzeko aukerak hobetzeko. Aurrekontu-akordioak azpimarratu egiten du **getxotarren bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzeko dugun konpromisoa**, baita Getxoko irisgarritasuna eta jasangarritasuna indartzeko ere.



ehbildu

EMISIO ALTUKO EREMUA ARTATZAN ETA ANTIGUO GOLFEN?

Artatza eta Antiguu Golf inguruko bizilagunek eta Artaza-Romo institutu-ko hezkuntza-komunitateak kezkatuta jarraitzen dute ibai-azpiko tunelaren proiektua dela eta. Ez da gutxiagorako. Bizkaiko Foru Aldundiak berak onartu du bere txostenetan tunel horrek, Artatza Ballonti inguruarekin lotuko lukeenak, trafikoaren eta ibilgailu pribatuaren erabilera % 30 baino gehiago handituko lukeela, horrek dakarren zaratarekin eta aparteko kutsadurarekin. Gainera, tunelak Artatza parkearen zati handi bat ere suntsituko luke, Getxo eta Leioa arteko birrika berdea,

eta institutuko patioari eragingo lioke. Zentzugabekeria handia, inguruko bizilagunen bizi-kalitatea okertuko lukeena, bai obretan zehar (bost urte baino gehiago iraungo dutenak), bai geroago. Ez da ibilgailu pribatuaren erabilera sustatzeko momentua, bestelako aukerak eskaintzeko unea baizik, hala nola garraio publikoaren zerbitzua indartzea (autobus linea berriak, maiztasun gehiago, deskontuak mantentzea...), etab.

Bistakoa da bizi dugun larrialdi klimatikoaren testuinguruan proiektu

honek ez duela inolako zentzurik. Hasiera batean, tunelari metro-konektio bat eranstea aukera aurreikusten zen, baina proiektuan ez da aukera hori aipatu ere egiten. Udalerririk handi guztietan, Getxo barne, emisio txikiko eremuak sortzen ari diren bitartean edo sortuko diren bitartean, ibilgailu kutsatzaileei sarbidea debekatuz, Artatza "emisio handiko" eremu bat sortuko dute. Klima-aldaketari aurre egiteko politika guztiak urratzen dituen inkongruentzia handia, beraz.

Eta, jakina, ez dugu ahaztu behar "in-

bertsio" edo, hobeto esanda, "xahutze" hori 500 milioi euro baino gehiago kostatuko zaigula (eta horiei ohiko gain-kostuak gehitu beharko zaizkie), eta ez dela inbertitiko beste premia garrantzitsuagoetan, besteak beste, Osakidetza eta lehen mailako arreta indartzea, hezkuntza-sistema, mugikortasun jasangarria, etab.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 8an, subflubialaren aurkako plataformak deitutako manifestazioarekin bat egingo dugu. Mobilizazioa 17:00etan abiatuko da Arriaga Antzokitik, Bilbon.



ADINEKOAK ETA GAZTEAK NAHI GABE BAKARRIK EGON EZ DAITEZEN EGITEN DUGU LAN

PSE-EEK kudeatzen duen **Gizarte Kohesioko Arloan** zenbait tailer jarri ditugu martxan, **gure gizarteak aurrean dituen erronka nagusietako batzuei** heltzeko. Horietako bat da **nahi ez den bakardadea**. Hori dela eta, lanean dihardugu **sozializazioa** sustatzen duten eta trukatzeko nahiz **ikasteko espazioak** sortzen dituzten ekintzak garatzeko **adinekoentzako eta gazteentzako**.

Ildo horretatik, udalaren +60 Dinamizazio Zerbitzuak **doako bi tailer** antolatu ditu, eta hilabete honetan jarriko dira abian Urgull Zentroan. Honako hauek izango dira: **"Adimenerako erronkak"** eta **"Xakea"**. Bestalde, azpimarra jarri dugu sare sozialetan eta teknologia digitaletan. Nahiz eta tresna horiek aukera handiak eman, isolamendua ere eragin dezakete, konexioa beharrean.

Problematika horri aurre egiteko, **"Zentzuzko erabilera eta osasuna saretzen"** programa jarri dugu abian.

Ekimen horiekin, **hezkuntza prebentiboa indartu nahi dugu, bai eta nahi ez den bakardadeari aurre egin eta sozializazioa sustatu** ere, horrela gizarte kohesionatuago, inklusiboago eta osasungarriago bat sortzeko.



PREZIO NEURRIGABEAK

Gure herrian etxebizitzaren prezioari buruzko datuak larriztekoak dira; hain zuzen, Getxok izan du alokairuko eta erosketako prezioen igoera handiena Bizkaian. Datu horiek erabat kontrastatzen dute tentsio handiko bizitegi-eremuaren deklarazioa egin den udalerrietan ikusten den prezioen jaitsierarekin. Neurri ausartak behar ditugu esku artean dugun arazo lehenbailehen konpondu behar dugulako.